

FINANTZA MERKATUEN EBALUAKETA

2010ko ekitaldian zehar, munduko ekonomia suspertzen hasi da 2009an izandako jaitsiera nabarmenetik. Hala ere, susperraldia ez da berdina izaten ari herrialde guztietan, garapen bidean dauden herrialdeek Asiak eta Latinoamerikak esaterako, etengabeko hazkundea erakutsi duten bitartean, mendealdeko herriek, eta hauen artean bereziki zenbait europar ekonomiak, bere susperraldian dinamismo txikiago bat mantentzen dute.

Europar zor publikoak bere historiako krisialdirik handiena bizi izan du, 2009an ezarritako politika hedatzaileek eragindako defizit publikoaren okerragotze mailaren ondorioz. Merkatuak zalantzan jarri du europar inguruko hainbat herrialderen gaitasuna beraien fiskalitatearen okerragotzea bideratzeko, honela, kredituen agentzia kalifikatzaileak ekonomi hauen zor publikoaren ratinga beherantz berraztertu dutelarik.

Greziako fiskalitate krisiaren leherketaren ondorioz, eurogunean finantza ezegonkortasuneko aldi bat hasi da, non hegazkortasunaren hazkundea, arriskuarekiko abertasia, inguruko zor publikoko merkatuen zigorzte nabarmena, burtsa merkatuen atzera egitea eta euroaren balio galtzea antzeman diren.

Krisiaren lehenengo ondorioetako bat, arazoari europar konponbide bat bilatzeko ardura hartzea izan da, horregatik, europar agintariak maiatzean, herrialdeko finantza egonkortasuna babesteko neurriak hartu zituzten, kapitalen merkatuan sartzeko arazoak zituzten herrialdeei laguntzeko, finantziario baliabideak sortuz. Horrez gain, EBZak berriro likidezi horridura sendotu zuen eta zor publiko eta pribatuaren erosketa programa bat hasi zuen ondoren murrizten joan delarik.

Bestalde, Estatu Batuetako ekonomiaren susperraldiari buruz sortutako zalantzak ere ez zuten lagundu. Izan ere zalantza horiek, eskariaren ahuleziak, lan merkatuaren makalaldiak eta familien finantzazio murrizketen mantentzeak sortuak izan dira. Azpimarratu behar da Estatu Batuetako Errreserba Federalak ekonomi hazkundearen ahuleziari eta inflazio maila baxuei (Quantitative Easing II) aurre egiteko asmoarekin hartutako moneta aragotzeko paketea.

ERRENTA ALDAKORRA

Hala ere, periferiako zor krisiak eta tentsioak dibisa merkatuetan ilundu dituzte enpresetako emaitza onak eta PBGren datu onak, eta inbertitsoreak oso selektiboak izan dira. Honek azaltzen du, zergatik defizit arazo gehiago dauzkaten herrialdeetatik ihes egin duten eta susperraldi ekonomikoak sendoagoa duten eskualdeak aukeratu dituzten.

Indize europar gehienek portaera ezkorra izan dute, Eurostoxx 50a %5,8 jaitsi da, CAC frantsesa %3,32, MIB italiarra %13,32, IBEXa %17,4. Aurrerapen bakarrak Alemaniako (+%16,06) eta Holandako (+%5,80) indizetan eman dira, non industri balioen zama nagusi den.


ENTITATEKO ESTATUTU ETA ARAUTEGIAREN ALDAKETAK

Entitateko Arautegiaren 9. eta 11. artikulua eta Estatutuen 17. artikulua aldatu dira, ondorengo aldaketak sartuz:

- Alargunari berreskuratze portzentajearen igoera %50tik %60ra, biziarteko errenta kobratzen ari zen titularrak hiltzerakoan.
- Biziarteko errentetan, titularraren heriotzaren kasuan, 6 urteko heriotza aseguru baten barneratzea, non bazkide ezkongabearen edo bazkide ezkonduaren onuradunak, ezkontidea aurrez hil bada, homidura matematikoaren portzentai beherakor bat %60 - %50 - %40 - %30 - %20 - %10 jasoko duen.

ERRENTAGARRITASUNA

Partaidetza Balioa:



Partaidetza Balioa:	14,541151 €
2010. urteko errentagarritasuna:	%3,59
Hasieratik konposatutako erre.:	%6,12
Errentagarritasunaren helburua 2010rako:	Inflazioa (%3,00)
Bataz besteko ondarearen Gastu Ratioa:	%0,22*

* 0,39 IKE eta AKEetan komisio inplizituak barne.

2010. URTEAN EKARPENAK EGIN DITUZTEN BAZKIDE KOPURUA

BAZKIDE BABESLEAK	BAZKIDE ARRUNTAK	EKARPENAK
11.702	123.165	89.048.273 €

Entitateko onuradun kopurua 425 da, hauek errenta bat jasotzen ari dira hildako titularraren kausadun direlarik.


SEKTORE BAKOITZAREN EKARPEN PORTZENTAJEAK

SEKTOREAK	2010KO GUZTIZKO EKARPENAREN %	SEKTOREAK	2010KO GUZTIZKO EKARPENAREN %
Metala	%4,60	Larru arloko merkataritza	%1,60
Zeramika	%3,50	Metal arloko merkataritza	%2,00
Zuraren industria	%2,00	Garbiketak	%2,50
Garraio-kudeatzaileak	%3,00	Hornitegiak	%4,00
Okindegiak	%1,20	Fruten handizkariak	%3,00
Beira	%3,50	Errepid. zeharreko garraioa	%1,50
Eraikuntza	%4,00	Lokalak, ikuskizunak eta kir.	%1,00
Papera	%1,20	Bulego eta despatxoak	%0,40
Altzariak eta osagarriak	%1,00	Merkataritza orokorra	%0,40
Ehun arloko merkataritza	%1,60	Tit. Publ. Kirol Instalazioak	%1,00

Azpirarratu behar da fruten handizkariaren sektoreak gehitu duela bere ekarpen ehunekoak %2,50etik %3,00ra, eta Gipuzkoan hitzarmen sektorialarik ez duten bi enpresek gehitu dituztela ekarpenak; Kateak Lantegiak %3,50etik %4,00ra eta Manufacturas Oriak %3,80tik %4,60ra gehituz.

Gainera, Titularitate Publikoko Kirol Instalazioen sektore berria barneratu da %1ekin.

ONDAREAREN BILAKAERA



PRESTAZIOAK

Mota bakoitzeko sortutako prestazioen kopurua eta zenbatekoa ondorengo da:



INBERTSIO ZORROA

2010rako Entitatearen helburu nagusia enpresa kapitala babestea zen, beraz zorroaren gehiengo Errenta Finkoan ezarrita egon da. Ildo bera jarraituz, Errenta Aldakorreko baloreetan inbertsio portzentajea maila murriztueta mantendu da.

Entitateak zorroaren %2,37 ORZA AIEn inbertitua du. GEROA PENTSIOAK BGAEK euskal enpresa alorreko sozietateetan inbertitzea eratu zen entitatean %50ko partaidetza du.

Zorroaren diibertsifikazioa Abenduaren 31an bukatu den moduan grafiko honetan erakusten da:

